

## “Berriztagarriei esker, kontsumitzaileek ez dugu izango konpainia handien beharrik”

Sergio  
De Otto

Renovables  
Fundazioaren burua

Energia berriztagarrietan aurreneko izateari utzi dio Espainiak, eta 26.000 lanpostu galdu dira azken bi urteetan. Kontsumitzaileek jakingo balute zer-nolako abantailak dituzten eta Gobernuak ez balitzaie makurtuko ohiko energia-enpresei, oso bestelakoa izango litzateke egoera. Horixe adierazi du Sergio de Ottok, Renovables Fundazioaren kidea. Sektore horretako adituek eta herritarrek osatzen dute erakunde hori, eta politiki-poliki, gauzak aldatu eta etorkizuna % 100ean berriztagarria izan dadin lortu nahi dute. De Ottok dioenez, nork bere etxean sortzen duen energia berriztagarriekin hornitu ahalko gara, argindar-konpainien beharrik gabe.

**Zein dira energia berriztagarrien abantaila nagusiak?** Tokian tokikoak dira, ez dugu zertan inportatu hemen ez dauzkagun erregai fosilak, ez-berriztagarriekin alderatuta, petrolioarekin, adibidez, oso oso eragin txikia daukate ingurumenean, eta aberastasuna eta dozenaka mila lanpostu sortzen dituzte gure herrialdean. Baina berriztagarriekin batera, aurrezpen- eta eraginkortasun-plan berriak sustatu behar dira, eta horrek zera ekarri behar luke, adibidez: Espainian dauden hogeit hamar milioi eraikinak energetikoki zaharberritzea.

**Hain onak badira, zergatik ez dituzte gehiago laguntzen?** Lehenik eta behin, jendeak ez dituelako ezagutzen. Eta ohiko energia-enpresak eginahalak egiten ari direlako aldaketa hori gerta ez dadin edo ahalik eta mantsoen gauzatu dadin. Dena den, kezkarriena hauxe da: Gobernuak horien interesei amore ematea. Etorkizuna berriztagarria izango da % 100ean, baina batzuen eta beste arteko sokatira horren mende dago lehenago edo geroago egin dadin.

**Energia berriztagarriekin soilik hornituko gara?** Zalantzarik gabe. Horri da-

ta jartzea, horixe da kontua. Europako zenbait erakunde aukera hori aztertzen ari dira 2040. urterako. Eguzkiak energia asko bidaltzen digu, guztiok estatubatuarren gisa kontsumituta beharko genukeena halako 300 eta gehiago, eta haiek kontsumitzen dute gehien. Ez gaude kondentatuta petrolio, gasa edo ikatza erretzera.

**Nork bere etxean sortzen duen energia berriztagarriekin hornitu ahalko gara?** Bai, posible izango da. Ikerketa bat aurkeztuko dugu datozen hilabeteetan, Energiaren demokratizazioa, non azalduko dugun nola pasatuko garen energia-kontsumitzaile izatetik, energia-ekoizle, -kudeatzaile eta -erabiltzaile izatera.

**Ez dirudi utopikoa?** Duela 15 urte norbaitek esan izan baligu berriztagarriek gure egitura elektrikoaren % 40 hartuko zutelako, utopia bat zela esan izango genukeen, baina horixe da egungo egoera. Bide horri jarraitu behar zaio. Ez ditugu behar iraganeko teknologiak, eta uste den baino azkarrago ordezka ditzakegu.

**Energiaren negozio handia galduko al dute konpainia handiek?** Beste betekizun bat edukiko dute, baina beti egon litezke haientzat egoki diren jarduerak.

**Zuek adierazi duzuen, hala ere, Gobernuak egindako plan berriak, Energia Berriztagarrien 2011-2020 Planak (PER), gerarazi egingo du teknologia horien bilakaera.** Halaxe da, oso helburu apalak jartzen dituelako. Plan hori eginga dago gas asko kontsumitzeko argindarra sortzerakoan, ohiko sektoreak lasaitzeko, eta guk hori salatu dugu.

**Plana ez al da egin horien hazkunde ertsizina saihesteko eta kontsumitzaileek ez dezaten behar baino gehiago ordaindu horientatik, Gobernuak adierazi duen bezala?** Berriztagarriak ez dira askorik hazi funtsezko bi arrazoire-

gatik: klima-aldaketaren erronkarekin jarraitzen dugulako (Kyotoko Protokoloa ez betetzeko zorian dago Espainia), eta kanpoko energiaren mendekotasun handiena duen herrialdeetako bat gare-lako (% 90ekoa dugu).

**Berriztagarriek ez al dakarte kostu gehigarri handiegia kontsumitzaileentzat?** Hori esaten duena errealitatea desitxuratzeko ari da. Berriztagarriek ez balego, energiaren prezioa igo egingo litzateke. Gasa inportatzeari utziz aurreztuko genukeenarekin ordain litezke ia berriztagarrien primak. Zer da hobe? Milaka milioi euro horiek Espainian inbertitzea eta lanpostuak sortzea, edo gasa eta petrolio ekoizten duten herrialdeetan egitea. Gainera, argiaren fakturan badaude gauza askoz larriagoak kontsumitzaileentzat, berriztagarrietarako primak baino. Eta ez gara askorik orotzen gasolina iaz baino % 15-20 garestiago ordaintzen dugula.

**Zenbat ordaintzen dute kontsumitzaileek?** Ohiko etxebizitza batek 18-20 euro ordaintzen du urtean. Kontsumitzaileek jakingo balute zer-nolako abantailak dituzten, poz-positik ordainduko lukete. Petrolio eta gasa igo egingo dira, bai ala bai, eta berriztagarriak, aldiz, gero eta merkeagoak dira. Ez bada horien alde apustu egiten, kontsumitzaileek gero eta faktura garestiagoak ordainduko dituzte, seguru.

**Kritikak izan dira zenbait parke eoliko-oren inguruan. Oinarririk gabeak al dira?** Gure herrialdean 800 parke eoliko baino gehiago daude, eta baliteke baten bat leku ez oso egokian eraiki izana. Hala ere, esan behar da epai aski kezkarriak ateratzen ari dira parke eoliko batzuen kontra, nahiz eta sustatzaileek ongi bete dituzten administrazio-tramite guztiak eta ingurumen-baimenak eskuratu.